



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

**ELIZA,
JESUSEN
FAMILIA**

ERANSKINA
LAGUNTZAILE, KATEKISTA ETA GURASOENTZAT

Delegación de Anuncio y Catequesis
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza



Eliza bezala jarraitzen dugu Jesusen atzetik ¹

Misioaren hasieratik, Jesusek ikasleen taldea deitu eta osatu zuen bere inguruan, berarekin bizi zitezen, hots egitera etorri zen mezua ezagutu eta, ondoren, bere ekintzaren iragarle eta lekuko izan zitezen munduan barrena. Deitu zituen ikasleen elkarte txiki hau izan zen geroko Elizaren hazia. Beraz, Jesusen atzetik jarraitzeko prest dauden gizon eta emakumeak biltzen direnean sortzen da Eliza. Jesusen atzetik jarraitzea da hasierako kristau elkarten bereizgarria.

“Denak apostoluen irakaspenak entzuteari eta elkarte-bizitzari emanak bizi ziren, ogi-zatitzea eta otoitza elkarrekin egiten zituztelarik. Mundu guztia izaturik zegoen, apostoluek egiten zuten hainbat egintza harrigarri eta mirarirengatik. Fededun guztiak elkarturik bizi ziren, eta dena denentzat zeukaten: beren lur eta ondasunak saldurik, guztien artean banatzen zuten dirua, nork zer behar zuen. Egunero bildu ohi ziren tenpluan, baina ogia etxeetan zatitzen zuten, otorduak elkarrekin pozik eta bihotz xaloz eginez. Jainkoa goستن zuten, eta herri osoaren estimazioa zuten. Eta Jaunak egunetik egunera gehitzen zizkion elkarteari salbatzen zirenak” (Eg 2, 42-47).

Eliza hitzak, batzarra, elkarte, bilera adierazten du. Eta horixe da Eliza, Jesusengan sinesten duten, Jesusen atzetik jarraitzen duten eta beren fedea elkartean bizi duten pertsonen bilera. Berdinen eta anai-arreben bilera. Inori aita edo jauna ez esateko esan zuen Jesusek, bat bakarra baita gure Aita eta Jauna.

Berdinen eta anai-arreben elkarte honetan, askotariko egitekoak egingo dituzte batzuek eta besteek, bakoitzak bere karismaren arabera jokatu. Paulok, korintoarrei idatzitako lehen gutunean (1 Kor 12, 4-31), Eliza beharrezko eta ezinbesteko atal anitzez osaturik dagoen giza gorputzarekin alderatzen du.

Eta elkarte honetan, denok dugu misio bera: Jainkoaren Erreinuaren zoriona iragarri eta bizi: “Jainkoa hemen da, gure artean, bizimodu duinagoa egin nahirik denontzat. Eta Jainkoarekin ez da itxaropen eta bizirik falta”. Hauxe da Jesusek Elizari uzten dion egiteko eta misioa: Jainkoak gizadi osoarentzat duen nahi hori iragarri eta bizi.

Eliza ez da Aita Santua, gotzainak, apaizak... bakarrik... Geu ere, gutako bakoitza, Eliza gara. Eta garrantzitsu eta ezinbesteko gara. Elizan inor ez da geldirik geratzen, denok gara eragile. Beraz, guztiok pozten gara asmatzeekin eta mindu egiten gaituzte hutsegiteek. Eliza egiteko esaten zaigu guztioi, hobe dezagula, maita dezagula, orain gurea ere baden Jesusen misioa gara dezagula, gure bizimodua “berri on” izan dadila gizatasun handiagoko, desberdintasunik gabeko gizartearen alde lanean, gizon eta emakume guztien duintasunaren alde borrokatzen ikusten gaituztenentzat, gure fedetik gure lana, gure familia, gure koadrila, gure auzoa..., gizatasunez bete dezagula.

Elizan dena ez da santua, ezta gutxiago ere. Akats ugari dago, asko bistako eta larriak dira, gainera. Izan ere, osatzen dugunok akastun eta bekatari gara, asmatzeak eta hutsegiteak ditugu eta, neurri batean, geure erantzukizuna ere bada Eliza era batekoa ala bestekoa izatea.

Baina akats eta hutsegiteak izan arren, Elizan berri ona eman digu eta ematen jarraitzen du. Elizaren bitartez aurkitu dugu Jesus. Elizan, kristau bezala bizitzera deituak gara eta horretarako laguntasuna jasotzen dugu.

Eliza ez da Jainkoaren Erreina. Eliza ez da gure lan, ahalegin eta itxaropenen xede. Eliza, Jesusen jarraitzaileen elkarte da, Jesusen berri ona ezagutu, bizi, ospatu eta iragarri egin nahi dutenen elkarte.

Jesusek bere inguruan adiskideen taldea osatu zuela azaltzen zaigu ebanjelioan. Bere jarraitzaileen taldea zen eta bere atzetik joaten ziren hara eta hona. Ikasle hauei bere egitasmo, ilusio eta beldurren berri ematen zien. Konfiantzaz hitz egiten zien. Beraien bizilagun izan zen, beraiekin hartu-eman estua izan zuen eta taldea, elkarte eratu zuen.

[1] Katekesirako Iruña eta Tuter, Bilbao, Donostia eta Gasteizko Elizbarrutietako Idazkaritza eta Ordezkaritzek parrokiako familia katekesirako argitaratutako gida pedagogikoko 3. kurtsoko 1. gaitik hartuta. 2012

Jesusen hitz eta egiteen, ikasleekin izan zituen esperientzien bidez ezagutu dugu bere nortasuna, Jesusek bere jarraitzaileen hasierako elkarte harentzat nahi zituen ezaugarriak.

Jesusekin bat eginda dagoen elkarte.

Jesusi atxikitzea eta Jesusen mezua nork bere egin eta bizitzara eramatea adierazteko, esamolde bera darabilte lau ebanjelariak: «Jesusen atzetik jarraitu» (Mk 1, 18 - 2, 14). Jesusen atzetik jarraitzeak zera esan nahi du: Berarengandik gertu egon, ezagutu, bere Hitzak zer dioskun ulertu, Jesusekin hartu-eman estua izan, Jesusen bizimodua geure egin eta gauzatu. Jarraitzea ez da norbaiten azpian jarri eta txintik esan gabe haren esana egitea, jakinaren gainean, askatasunez laguntzea baizik.

Elkarte askatzailea.

Jesusek ez du nahi ikasleak, haur txikiak balira bezala, bere menpe egotea; pertsona heldu, burujabe nahi ditu, beren bizitza eta jardueraren erantzule. Kristauak ez du hautu hau ala bestea egiten Jesusen esan duelako, esperimendu ondoren, osotasunez bizitzeko, munduari duintasun gehiago emateko bide egoki lez ikusi duelako baizik. Jesusen atzetik jarraitzea, beraz, ez da zama, poztasuna baizik, gizakiaren nahi sakonenei erantzuna aurkitzetik sortutako poztasuna (Mt 13, 44-46).

Anai-arreben elkarte.

Jesulentzat, inguruan dituen guztiak dira berdinak eta horregatik «adiskide» (Lk 12, 4; Jn 15, 15) eta «anai-arreba» (Mk 3, 35; Mt 28, 10, Jn 20, 17) deitzen die. Horregatik ez du bere jarraitzaileen artean desberdintasunik sortzen duen ezer onartzen (Mt 23, 8-10).

Berdintasuna, ordea, ez dago elkartearen antolamenduaren aurka, hau ezinbesteko baita barruan nahiz kanpoan jardueraren bat garatzeko. Antolamendua, hain zuzen ere, karismen errealitate eta aniztasunean oinarritzen da, hau da, Espirituak sustatutako eta guztion onerako jarritako kideen dohain naturaletan edo jadetsitako dohainetan.

Elkarte zerbitzaria.

Jesusen bere jarraitzaileen jarrera bereizgarria aipatzen du: «lehenengo izateko», ezinbestekoa da elkarteko kide guztien zerbitzura jartzea (ik. Mt 23, 11; Lk 22, 24-27); «handi izateko», ezinbestekoa da «zerbitzari» izatea, hau da, geure egin behar ditugu azkenen itxaropen eta beldurrak.

Beraz, Jesusen atzetik jarraitzean, kristau elkarteko inork ez du zerbitzatu izatea eskatuko, alderantziz baizik, zerbitzatu egingo du eta, gainera, beldurrik gabe lan egiteko prest izango da, azkenak duintasunez bizi daitezen.

Behartsuengandik gertu dagoen elkarte.

Behartsuen aldeko hautua ezinbestekoa da Jesusen elkartean sartzeko: «Nire ondoren etorri nahi duenak uko egin biezaio bere buruari» (Mt 16, 24), hau da, uko egin biezaio edozein anbizio pertsonali. Horregatik, gure konfiantza aberastasunean ez jartzeko dio Jesusek.

Gainerako gizon eta emakume guztiak eskuzabaltasunera bultzatuko dituen elkartasuna erakustea da kristau elkartearen misioa.

Banatzea, maitasunaren adierazpena da; baina ez litzateke erabateko maitasuna, eta bai iraingarri samarra, nork bere burua emango ez balu. Jesusek maitasunezko hartu-emana sustatu nahi du, baina beti ere dena, norbere burua barne, ematearen bihotz-zabaltasunetik.

➔ **Espirituak sustatutako elkartea.**

Jesusi atxiki ondoren, kristau elkarteko kide guztiek eta bakoitzak bere Espiritua jasotzen dugu. Espiritua da Jesusen agerpen fisikoa ordezkatzeko duen agerpen etengabea. Elkartearen bereizgarria da: Jainkoak helarazten digun maitasuna Espirituaren bidez izan eta bizi. Espirituak Aitaren eta Jesusen presentzia gauzatzen du fededun bakoitzarengan eta Elizan.

Elizak, Jainkoaren Hitza entzun eta bere egitean, idazkien bidez hitz egiten duen Espiritu Santuaren irakaspena, heziketa era erronka onartu egiten du. Horrela, Hitza bere egin eta elikagai bihurtuz, bat egiten du Jesusekin eta, Jainkoaren Espirituari esker, beste sinestedunekiko elkartasunean hazi egiten da.

➔ **Jesusen jarraitzaileak gaur.**

Orain arte esan dugun guztia, ikasleen lehen prediketik gaur egunera arte, munduan barrena eratu eta hazi izan diren eta arraza, hizkuntza, herritartasun eta gizarte egoera guztietako gizon eta emakumez osaturik dauden Jesusen jarraitzaile edo ikasleen elkarte guztiei ezar diezaiekegu.

Elkarte-sena, kristau fedearen osagaietako bat da. Jainkoa, Aita dela antzeman duenak, Erreinuaren mezua antzeman duenak... ezinbestekoa du anai-arrebekin, Aita beraren seme-alabekin biltzea. Odol-lokarriek familian bizitzera garamatzaten bezala, Aita berarekiko loturak elkartean bizitzeko nahia pizten digu.

Gaur, geuk jaso dugu arbasoengandik Jesukristorenganako fedearen lekukoa eta geuk dugu fede hori bizitzeko eta hurrengo belaunaldiei helarazteko konpromisoa.

Gogoetaren ostean...

Elizako kidesun-senaz jabetu behar dugu, hau da, ezin dugu pentsatu kristau elkartean bizitza eta jarduerak abadearen eta beste lau lagunentzako kontua denik. Askotan, kristau 'egin gaituztela' ematen du, ez dugu hautu pertsonalik egin eta, ondorioz, ez gara Elizako kide erantzunkide sentitzen.

Fededun gara eta Jesusen bizimodua ezagutzeko, ospatzeko eta bizitzen ikasteko biltzen den elkartearen barruan gaude. Geure buruari galdetu behar diogu: Zein egiteko dugu kide garen elkarte horretan? Nola islatzen da gure etxean, gure seme-alabekin, kristau nortasuna?

**Irudian klik egin
bideoa ikusteko**



LAGUN GAITZAZU...

*Zure laguntzarekin, Jauna,
elkartean bizitzen ikas dezadala.
Horixe baita zure nahia,
eta besteekin bat eginda bizi nadila.
Zure laguntzarekin, Jauna,
eta apostoluek bezala,
elkarte izatea, besteengatik
eta besteentzat bizitza,
beste batzuekin,
zure jarraitzaile diren
gizon eta emakumeekin,
bat egitea dela
jakin eta sentitu dezadala.*